

El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.

Andoni Ortuzar

Presentación de candidaturas BEC

2023-2-12

Alderdikideok, alderdizaleok! Hurrengo udal eta foru hauteskundeetara aurkeztzen diren hamasei hautagaien ahotsak entzun dituzue gaur. Hamazazpi ahots Lehendakariarena ere gehitzen badiegu. Alderdiaren ahotsak dira denak. Alderdi honek gizarteari eskaintzen dizkion ahotsak eta aurpegiak gure erakundeak kudeatzeko, datorren maiatzaren 28an alkate, zinegotzi edo batzarkide izateko aurkeztuko zareten hautagai guztiekin batera. Euzko Alderdi Jeltzalearen benetako dimentsioa erakutsi nahi izan dugu gaur. Sigla baten inguruan adin ezberdinetako emakumeak eta gizonak batzeko daukagun gaitasuna agertu nahi izan dugu. Bakoitza bere bizimodu eta lanbidearekin. Batzuk dira herri txikietakoak eta beste hainbat hiri handietakoak. Baina hiru elementu dira guztiok batzen gaituztenak: Herri baten parte gara, Euskadi, Euskal Herria. Eta Konpromiso sendoa dugu denok Herri horrekin. Herria eta Konpromisoa dira, beraz, lehen bi elementuak. Ilusioa da hirugarrena. Ilusio handia, gure Herria gero eta askeagoa izan dadin. Gero eta bizimodu hobea izan dezagun. Herria, Konpromisoa eta Ilusioa!!!

Pueblo, Compromiso e Ilusión. Ese sería el resumen que haría yo hoy después de escuchar estas diecisiete representativas voces de nuestro Partido. Es la esencia del PNV, un partido que se construye de abajo hacia arriba. No somos un partido de liderazgos unipersonales. Aquí no elegimos un 'gallo' para que se pelee con otro 'gallo' en la plaza pública o en el Parlamento y a partir de ahí se construya eso que ahora llaman el relato político... y todos los demás por detrás en rebaño. No. En el PNV las cosas funcionan al revés. De vosotras y vosotros emanamos, emanamos, personas a las que en un momento determinado nos toca ejercer unas funciones al servicio de este País. Lo importante es el colectivo, el grupo y la tarea que tenemos por delante. Lograr los mejores resultados posibles para que nuestras Diputaciones y Ayuntamientos estén bien gobernados, para que estén en buenas manos y la calidad de vida de la ciudadanía sea cada vez más alta, para que los servicios públicos sean cada vez mejores. Nunca hemos perdido ni debemos perder jamás de vista para qué estamos aquí: estamos para servir a la gente. Nuestra labor es construir pueblo, construir territorio, construir nación. Y trabajar para la gente. Trabajar para la gente. Las personas en el centro de nuestra actividad política, siempre.

Eta une honetan, aretoa beteta dagoela ikusita, hautagaitzetan parte hartzeko prest agertu zareten guztion aurrean, eta Uri Erakundeetan lan egiten duzuen alderdikide guztien aurrean, argi eta garbi ikusten dut 'EAJ ereduak', ezberdin eta berezi egiten gaituen ereduak, inoiz baino biziago jarraitzen duela. Inoiz baino eraginkorragoa da, inoizko sustrai sendoak ditu Herri honetan. Eskerrik asko zuen udalerrri eta herrialdeei BAI esateagatik! Eskerrik asko Euskadiri BAI esateagatik! Eskerrik asko etorkizun hobe bat eraikitzeari BAI esateagatik! Harro gaude! Eskertuta gaude zuekin guztiekin kontatu ahal izateagatik eta gure jendeari hautagaitzarik onenak eskaini ahal izateagatik. ¡Modelo PNV! EAJ eredua! Euskal eredua! Eta esan gabe gera ez dadin: harro ere bagaude orain kargua utziko duzuen guztiok, erakundeetan onena eman

ondoren. Mila esker, hamaika mila esker egindako lanagatik! Hau da EAJ eredu! ¡Modelo PNV!

A quienes ahora dejáis las Instituciones no os han tocado momentos fáciles. Llevamos quince años complicados. Todo tipo de dificultades encadenadas: crisis económica, pandemia, guerras y nuevas incertidumbres económicas... Pero hemos sabido capear el temporal, hemos sabido resistir como pueblo y hemos podido proteger a quienes peor lo estaban pasando para que nadie se quedara descolgado. Hemos salvaguardado los servicios públicos. Hemos mantenido el crecimiento económico y el empleo. Parece que los tiempos que vienen van a seguir siendo inciertos. La única certeza que hoy quiero transmitirle aquí a la sociedad vasca es que el PNV está listo y preparado. Listo, preparado y con las mejores personas dispuestas a servir a este País, a sus municipios y Territorios. Con ganas e ilusión, con proyectos y propuestas, con seriedad y sentido común, con honestidad y entrega.

Alderdikideok, alderdizaleok eta, bereziki, hautagaiak: vienen unos meses cruciales, tanto de cara a las elecciones como, sobre todo, por la situación socio-económica. Tenemos que dar la talla. La sociedad vasca nos está mirando. Está esperando que le digamos por dónde ir y qué hacer. El mundo de la política no atraviesa momentos boyantes, precisamente. Nosotros y nosotras hemos hecho nuestro proceso de escucha activa y mejora interna, el 'Entzunez Eraiki'. Va a ser nuestra hoja de ruta para mejorar como partido, para hacer las cosas con más participación y más transparencia, con más apertura a la sociedad. Con más pluralidad e igualdad. Hoy y aquí ya habéis visto pasos decididos en esa dirección.

'Entzunez Eraiki' prozesuaren ondorioen aurkezpenean politika zaharraren eta politika berriaren artean ezberdintasunak egiten dituztenen aurrean errebelatu nintzen. Ez dago halakorik! Ez dago politika berririk edo politika zaharrik! Bai dago, ordea, 'politika ona' eta 'politika txarra'. Edo, hobeto esanda, politiko batzuk badaude herritarren arazoak konpondu nahi dituztenak, herri, hiri eta herrialdeetako arazoak konpontzeko lana egiten dutenak... eta beste politiko batzuk badaude arazoak sortzen dituztenak... eta arazo bihurtzen direnak.

Nosotras y nosotros queremos estar, y estamos, en el lado de la 'buena política', la que pone a las personas en el centro de todo. La política que quiere servir a la ciudadanía. Vocación de servicio a este Pueblo. Compromiso con este Pueblo. Ilusión por este Pueblo. Somos el PNV y estamos de nuevo en marcha. Aurrera egiteko. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan aurrera egiteko! Herri bezala aurrera egiteko! Euzko Alderdi Jeltzalea gara eta lortuko dugu! Aurrera egiteko, Partido Nacionalista Vasco!

Gora Euskadi askatuta!!!